

glasnost

Par TXILLARDEGI

Horra hor MOSKUtik etorri den hitz berria : «gardentasuna», nolazpait euskaratzeko. Eta, hitzarekin batera, halako autokritika joera osasungarria zabaldu da.

Sobietar Federazioan hozitutako fenomeno, Ekialdeko estatu sozialistak iritsi ditu segidan ; eta gertakariak azkartuz eta sakonduz joan dira baztar guztietan. Benetan esan bide daiteke, aspaldiko partez, stalinismoaren suntsiera begi aurrean dugula.

Eta honek berebiziko garrantzia du sozialista iraultzaileen artean ; sozial-demokraziak ezkerri ekarritako kalteez gain, stalinismoak mende erdi luze batez ekarritakoak ez baitira axalagoak izan.

Hots, egun hauetantxe (ikus EGIN bera, adibidez, 1989ko Otsailaren 7-ko alean) Hungariako azken gorabeherak zabaldu dira munduan barrena. Imre NAGY, komunista buruzagia, «traidore»tzat orain dela hogeita-hamar urte afusilatua izan zena —eta geroztik Hungariako salduzat osoki gaitzetsia— Sobietar Batasuneko beste hamaika irautzaile bezala, «rehabilitazio» (ber-ohoraketa) prozesuan abiatu omen da.

Hungariako Barne-Ministroa den Imre POZSGAY jaunak —EGIN koptatuko dut hitzez hitz— Urtarrilaren 28an aditzera eman zuenez, «1956 urteko Urriaren 23tik Azaroaren 4ra arte izan zen matxinada, egiazki HERRITAR MATXINADA izan zen». Hori bakarrik ez, jakina.

Imre NAGYK zeukan proiektu anti-stalinista hura, zuzena zela ageri da gaur ; eta, bestela esanda, azkeneko 32 urteotan Janos KADAR-en zuzendaritzapena Hungariako Komunista Al-

derdiak 1956ko gertaerei buruz eraman duen politika osoa, guztiz desegokia izan dela aitortzeko unea etorri dela. Eta NAGYren alde jokatu zutenak izan zirela, hain zuzen, hungariar jatorrak eta benetako sozialistak.

VIENA-tik etorritako albistea zehatz dezagun : «*Historialariak berak isilik mutu egon dira 32 urteotan, egun haietan gertatu zenaz hitz egiteko beldurrez*». Orain ez dago beldur hori.

«Glasnost»-aren etorrera dela-ta, posible da egun 1956-ko gertakari hitzez kezkarik gabe eta argi-eta-garbi mintzatea.

Eta hau sekulako aurrerapena da. Euskal-Herrian, jakina denez, ez da Hungaria, Txekoslovakia edo Errusiako egoera ezagutu. Alderdi marxista leninista ofizialek ez dute agintea kontrolatu. Eta euskal ezkerera ere ez, tarte-marteka ez bada.

Urte haietan isilpeko oposizio zailean mogitu ziren abertzaleek, ordea stalinismoaren olatu bera jasan zuten. Marxismo-leninismoari buruzhotz edo uzkur agertzea, anatomia izan zen luzaz : «*sozialismoa bakarra da —entzuten genuen— eta sozialismo hori marxismo-leninismoa besterik ez da*».

BAKUNIN, KROPOTKIN edo PROUDHON aipatzea, oso arriskuagarria zen, are euskal ezker abertzalean ere ; austro-marxisten ekarpenak interesgarri jotzea, guztiz bide labainean behera lerratzea ; eta TROTSKY bera, marxistarik ortodoxoena zenbait aldetatik tabu zen. Hitz batez, ilunpeetako Euskal Herri hartan, ezkerterra izatea, MARXISMO OFIZIALAREN ILDOAN gerta zitekeen ; baina ez bestela.

Bandera beltza etsaia zen osoki.

Abertzale izanik, problema larriak sortzen zituen jarrera horrek. Arako nazionalari buruz MARXek hartutako jarrera ez baitzen (ez baita, hobe) beti eta segurki nazio txiki eta zapalduen eskubideen aldekoa.

Federalismoa eta autojestioa defenditzea, bide beretik (sozialismo libertariaren bi ardatz nagusiak, beraz) gaizki ikusia izan da luzaz euskal ezkerren parte handi batean. Leninismoaren arauera, zentralismoa eta plangintza orokorra nahi-ta-ezko baldintzak izan direlako.

Eztabaida alfer horietan, noski, indar asko eta denbora luzea galdu du ezker abertzale jator askok ; eta makina bat aldiz jasan behar izan ditu irainak eta gezurrak ; eta, hitz batez, urrunkotik bada ere, stalinismoaren herpeak guganaino ere heldu dira. Eta ez beti sozial-demokrata etsituak bakarrik madarikatzeko.

«Joandako ura» pentsa dezake zenbaitek.

Agian !

Ez dut nik uste, ordea. Gure artean ere, eta ezker abertzalean bereziki oso onuragarria izango litzateke aspaldiko eztabaida mamitsu batzu plazartztea ; eta oskurantismo «gorri»aren (?) izenean egindako deskalabroak ikertzen hastea. BUDAPESTen edo MOSKUn bezala.

Hitz batez, gure artera ere «Glasnost» delakoaren etorrera eskatuko nuke.

Zinez, ezker abertzaleak erruz irabaz lezake. Sinesgarritasunean batez ere. Eta bidegabeki mindutako hainbat sozialista abertzalek, hori eta gehiago merezi dute.

RECONSTITUTION



Beaucoup de monde, le 10 février, pour la seconde reconstitution de la mort du gendarme BUSCHMANN à BISCAROSE : Cette fois-ci les deux impliqués, mais aussi la veuve de la victime, des experts de l'identité judiciaire, un interprète en langue basque, en plus du Juge, de la greffière, de la Procureur, de témoins et des innombrables

gendarmes. Maîtres CONSTANT et J.B. ETXEBERRI assistaient Lucienne FOURCADE et Filipe BIDART.

Ceux-ci, sans participer, ont précisé certaines situations. C'était leur deuxième rendez-vous de la semaine, après une confrontation, le 7 février, dans le bureau du Juge.



CETTE SEMAINE TARTARO S'EST ÉTONNÉ

— que le Centre des C.C.P d'Aquitaine refuse d'encaisser un chèque postal émis à St-PALAIS au bénéfice d'ENBATA parce que libellé en euskara. Ordre est donné «somme en lettres à libeller en français».

En revanche aucune remontrance pour la somme en chiffres arabes !

— de la multiplicité des succès policiers en matière de drogue et de trafic divers depuis la fin des attentats d'I.K et la trêve d'ETA. A croire qu'auparavant ces truands pouvaient agir à leur guise, nos forces de l'ordre étant toutes occupées à chasser du Basque !

— du slogan «BAYONNE AVENIR» choisi par la liste municipale du maire Henri GRENET, 81 ans, lequel ne se couche plus dans l'espoir que s'applique le proverbe : l'avenir appartient à ceux qui se lèvent tôt.